

## Gazte Asanblada

**Sortu berri den talde honen lehen bileran 60 lagun elkartu ziren. Horren ostean ez dira hainbeste gazte bildu eta taldeak burutu nahi dituen asmo guztiak betetzeko partaidetza handitzea ezinbestekoa du. Animatu eta parte hartu!**



### **Zein urtetan sortu zen taldea?**

Ermuko Gazte Asanblada, 2009ko, maiatzaren 29an sortu zen. Hala ere, zera esan behar da: ideia talde txiki bati bururatu zitzaioela, astero biltzen zen eta taldearen egitura, ezaugarriak, egin zitezkeen ekintzak eta abar adosten joan zen talde hori. Bilera deialdi bat egin zuten eta maiatzaren 29an, 60 pertsona baino gehiago elkartu ginen.

### **- Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Ermuko Gazte Asanbladaren helburuen artean, herriko gazteon artean autogestioaren bidez, jarduera desberdinak burutu ahal izatea legoke, bai pertsonalki beteko gaituztenak, eta baita gure herriaren irudia hobetuko dutenak. Gure ustez, Ermuko gazteria oso banandua dago, koadrilak lokale-tan sartu eta ez dugu aukerarik beste herriko gazteekin harremanik izateko, gure koadrilako gazteak baino ez ditugu ezagutzen. Nahiko indibidualista da gure gizartea berez eta horrelako jarraera azalduz ez dugu lortuko sozializazio kolektiboago bat. Beraz, gure helburu nagusia, Ermuko gazteria biltzea da, guztion artean hainbat ekintza burutzeko eta herrikoen arteko harremanak sustatzeko.

### **- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?**

Ostiralero biltzen gara, arratsaldeko 18:30ean Eskilarapekon, eta edonor etor daiteke. Azkenaldian oso jende gutxi biltzen gara eta zaila egiten zaigu hainbat ekintza burutzea. Beraz, batzarretara etortzeko deialdia egin nahi dugu, askotan irakurri eta entzun den esaldi hau berriz ere... *'Animatu eta parte hartu! Denok gara Gazte Asanblada!'*.

### **- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?**

Egin ditugun ekintzen artean, 2009ko uztailaren 11n Orbe Kardinal Plazan prestatu genuen Herri Bazkaria aipa dezakegu. Santixauetan, kalean txosnak ipintzeko itxaropena genuen, baina Udaleko hainbat zinegotzirekin batzar asko izan ondoren, batetik bestera bueltaka ibili eta azkenik alkatearekin ere batzartu ostean, ezezkoa eman ziguten eta lokal batean jarri behar izan genuen Ermuko Gazte Asanbladaren txosna. Negurako prestatzen ari garen otzara ere aipatu behar dugu. Eskilarapekon dago eta errifak dagoeneko salgai daude. Lehenengo saria aipatu otzara da eta bigarrena Donostiako 'La Perla' talasoterapiari, bi per-

tsionentzat zirkuitua. Zozketa abenduaren 18an arratsaldeko 18:30ean, Eskilarapekon egingo da. Kamisetak atera genituen, Bartzelonako, Barrikada Zapatistako bi kide ere etorri ziren Eskilarapekora gurekin hitz egitera... Orain arte egindako ekintza guztiez gain, datorren urterako beste hainbat prestatzen gabiltza: Baldespina parkeko errekararen garbiketa, SOS Racismo-rekin bilera (inguruan zabaldu behar dituzten zentroei buruz hitz egiteko), zine-foruma... Eta lan gehien eskatuko duen Gazte Eguna, baina hori eguraldi ona egiten duenerako utziko dugu. Horretaz gain, kontzertuak, tailerrak, hitzaldiak, bertso saioak ere egingo ditugu. Baina horretarako jendea behar dugu. Beraz, gurekin aritzeko prest daudenen laguntza eskertuko genuke.

### **- Zuekin harremanetan jartzeko?**

Ermuko Gazte Asanbladak bloga du: <http://ermukogazteasanblada.blogspot.com>. Bertan hainbat berri idazten ditugu eta argazkiak ere baditugu. E-maila: [ermukogazteasanblada@hotmail.com](mailto:ermukogazteasanblada@hotmail.com). Hala ere, ostiraletan 18:30ean Eskilarapekora etortzea izan daiteke erarik errazena gurekin harremanetan jartzeko.

Olatz Gil

**ARRIETA CORDEVI**

Elektrotresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MUGA**

**KIKLOAK**

San Pelaio 4A behea  
Telefona: 17 64 77  
ERMUA

**I** AKADEMIA

**E** ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI  
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g  
Telefona (943) 17 90 38

**IZOTZ**  
KONJELATUAK

Ermuko Merkatua,  
54 eta 55 postuak  
943 17 41 01  
Arrasateko Merkatua  
943 77 05 98